

Afera politiko bat



ARITZ GALARRAGA

Ez da zehazki Proust galdetegia, baina 26 idazle frantses garaikideri pausatu die galde sorta bera Alexandre Gefen ikerlariak, eta bildu ditu erantzunak *La littérature est une affaire politique* liburuan; tartean Annie Ernaux, Mathias Énard, Nicolas Mathieu, Alice Zeniter bezalako izenak, gertuago Marie Darrieussecq –zeinari irakur dakiok egun oso euskaldun eta oso frantses sentitzen dela aldi berean; edo beste hau: “ez nuke deus izango Euskal Herri independente, demokratiko, laiko, feminista baten kontra”-. Izenburuak ondo dioen bezala, literaturaren eta politikaren arteko harremanaz dihardute galde-erantzunek, konpromiso deiturikoaz, literatura despolitizatu ote den, edo birpolitizatu, zein diren zera politikodun obra literario handiak. Literatura onak izan behar du arduratsu, engaiatu, politikoa?

Noski, testigantzak dira askotarikoak, tarteka aurkakoak, baina badabil guztien gainetik urrin bat: politika politikoa baino, alegia, politikokeria baino, gaur-gaurko eztabaidak interesatzen zaizkie idazleei, ekologia, feminismoa, lan mundua. Ezezagun dena ezagutaraztea, idazlearen zereginetako bat izanik, dominazioaren angelu itsuak agertu, hitza eman ahotsik ez dutenei, gizajendearen polifonia entzunarazi nahi dute. Gai bat eta ikuspuntu bat aukeratzea jada engaiatzea da, gauzak beste modu batera ikusaraztea politikoki jokatzeko. Idaztea bera da engaiamendu bat, beraz, literaturak engaiatzen zaitu, eta literaturak eduki dezake eragin politiko bat munduagan: idazlea politikoki baliagarria da mundua ulertzeko, esan nahi baita, mundua hobetzeko, berritzen du kontakizun kolektibo sozial eta historikoa, eta zentzu politiko berri bat ematen dio munduari. Ahots desberdin eta bereziak entzutera emanez, literaturak areagotzen du pluralismoa eta eztabaida demokratikoa. Liburu hau irakurri ondorenean, eta libertimendu hutsera lerratu uste den honetan: literatura, besteren gainetik, afera politiko bat da. ●

HERRI URRATS!



AOR

PAI

Ingelesez Ikasteko Programako (PAI) 350 irakasleren lanpostua egonkortzeko aurreproiektu legea onartu dute PSNk eta Navarra Sumak. Akordioak tira-birak areagotu ditu Nafarroako Gobernuak bazkideen artean. Legearen aurka maiatzaren 7an manifestazioa deitu du hainbat sindikatu eta eragilek.

Mastodonera

Elon Muskek Twitter erosi izanak zalaparta handia eragin du. Hartu ditzakeen erabakien beldur, Twitterreko erabiltzaile askok Mastodoneko larre gozoagoetara jauzi egitea erabaki du. Muskek duela hilabete Twitterren zati bat erosi zuela iragarri zuenetik, 150.000 erabiltzaile aktibo inguru irabazi ditu Mastodon sareak.

Elhuyar

50 urte bete dituen Elhuyarren sortzaileei eman diete CAF-Elhuyar sarien merezimendu saria. Kultura zientifikoa sustatzen duten sarien beste garaileak Ane Portillo Blanco, Amaiur Esnaola Illarreta, Jon Villapun Arbide, Maider Ibáñez, Jon Goikouria, Fatima Villa González eta Arantzazu Luzarraga Iturrioz izan dira.